

BERRI OROKORRAK

2025eko maiatzaren 23an 32. zenbakia

Ikastola-Eguna

Aurten, **Ikastola-Eguna** **ekainaren 7an** ospatuko dugu eta egun horretako bazkaria antolatzen hasiak gara (500 lagunentzat izango da, gehienez).

Bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak eskuratzeko salgai izango dituzue:

- Ikastolako idazkaritzan, maiatzaren 26tik 30era, 8:00-13:00 bitarte.
- Agerialdeko jolastokian, maiatzaren 27 eta 28an 16:30-17:00 bitarte.

Hurbilago Ostalaritza Taldearen eskutik jarritako menua:

Ikasleentzat:

- Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: 11 €

Helduentzat:

- Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta pattarra: 16 €

*Alergiaren bat izanez gero, txartela erosterako garaian, bertan jakinarazi.

*LH 1etik aurrerako ikasleek beraien taldearekin esertzeko aukera izango dute. Gurasoekin esertzea nahiago badutei, bazkari txartela erosterakoan adierazi beharko da.

Bazkal ondoren ikasleen musika-emanaldi bikaina izango dugu arratsaldea girotzeko!



Ibilaldia 2025

Igandean, maiatzak 25, Galdakaon Bizkaiko ikastolen festa ospatuko da. [Informazio gehiago...](#) Anima zaitetz eta parte hartu!



Ibilaldia
**Magaletik herrire
euskera erdire**
Galdakao maiatzak 25

Herri Urratsi laguntza

Joan den igandean 42. Herri Urrats jaia ospatu zen Senperen. Milaka euskaltzale hurbildu ziren bertara, baina bezperako euriteen ondorioz, nahi beste jende ez zen bertaratu. Beraz, Herri Urratsi lagundu nahi badiozu, [honako aukerak](#) dituzu.



Eskola-kirola 2025/2026

Datorren ikasturterako Zirimara eta Eskola kiroleko (esku pilota, futbol, eskubaloia eta boleibol) **izen-ematea GAUR amaituko da.**

[Hemen](#) informazioa eta izena emateko galdetegia.

[Hemen](#) eskeintzaren egutegi eta orduteiak.

Beste eskaintzak:

JUDO:

Noiz: Astelehen eta asteazkenetan

Ordua: LH1-2 (17:00 - 18:00)

LH3-4 (18:15 - 19:15)

LH5-DBH2 (19:15 - 20:15)

Lehenen aldiz izena eman behar dutenak, irailaren 8tik aurrera astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara kiroldegiko tatamian egin dezake.

GIMNASIA ERRITMIKOA:

Informazioa: info@tximeleta.eus Telefonoa: 943116342/ 688683064



Irakurketa solasaldia

Ekainaren 12an, osteguna, 15:30ean, Sutegi Liburutegian, [IRAKURKETA-SOLASALDIA](#) izango da 11 urtetik gorako gaztetxoentzat (DBH barne). Mintzagai izango dugun liburua: Idoia Garzes lasartearraren KUKUAREN KANTUA.

Liburuak jada eskuragarri ditugu Liburutegian.

Iraupena: ordu bat.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu. [NEURRI HORIEK](#)

ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ipuin-kontaketa

Maiatzaren 29an, osteguna, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, [IPUIN KONTAKETA](#), AMAIA EGIDAZUren eskutik.

Saioa HH4 eta HH5-eko ikasleei eskainiko zaie.

Iraupena, 45 minutu inguru.



LEHEN HEZKUNTZA

Zesta punta ikastaroa

Datorren astelehenean, **maiatzak 26**, LH6. mailako ikasleei 2. hiruhilekoan egindako zesta punta ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie. Kostua **4,85 €** da eta errezibo bidez kobratuko zaie.



Irteerak

❖ LH3. Ikasbidaia

Maiatzaren 26an eta 27an **LH3.** mailako ikasle eta irakasleak gaua pasatzera joango gara IRRISARRI LANDera. Asteartean 16:30etarako bueltatuko gara ikastolara.



❖ LH4. Orio

Maiatzaren 30ean (ostirala) ikasleekin irteera egingo dugu Usurbiletik Oriora. Egun-pasa izango da. Gogorazten dizuegu ikasleek **bazkaria, ura eta ibilaldirako arropa eroso**a ekarri behar dituztela. Hondartzan bainatzeko asmoa ere badugu, beraz, **bainujantzia eta toaila** eramatea ezinbestekoa izango da.

Itzuleran **trenez** bueltatuko gara, beraz, **MUGI txartela** ekartzea ere beharrezkoa da.

❖ LH5. Getaria-Zarautz

Datorren ostiralean, maiatzak 30, LH5. mailako ikasle eta irakasleak egun osoko irteera egingo dugu Getariako hondartzara.

Eraman beharrekoak

*Hondartzarako beharrezkoak: eguzkitako krema, bainujantzia, toalla...

*Ura, hamaiketakoa eta bazkaria

*Izozkia erosteko 3,10 €

*Mugi txartela

Eguraldia ezengonkor dagoenez, datorren astean zehar irteera eguna alda genezake. Hala bada, jakinaraziko dizuegu.

LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du.

Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue. Ikastetxearen kodea UDIK2539 da. **Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 31 da.** Zailtasun ekonomiko edo teknikoak badituzue, jar zaitezte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.



DBH

DBH 4ko ikasleen irteera

Maiatzaren 27an, eguraldia lagun badugu, DBH4. mailako ikasleekin, Gorputz Heziketa arlotik antolatuta eta natur jardueren barruan, Oria Ibaian piraguan ibiltzera joango gara.

